

# EKINTZA HUMANITARIOARI BURUZKO LAN-DOKUMENTUAK

## 2. zk.

**“Ekintza humanitarioaren kontzeptuzko alderdiak  
eta mugak: eztabaida ireki bateko adostasunak  
eta desadostasunak”**

## Aurkezpena

“Ekintza humanitarioaren kontzeptuzko alderdiak eta mugak: eztabaida ireki bateko adostasunak eta desadostasunak” izeneko lan-dokumentua aurkeztu nahi dizuegu oraingoan. Ekintza humanitarioari buruzko bilduma osatzen duten bost koadernoetako bigarrena da. “Ekintza humanitario” kontzeptuaz eta haren mugez gain, beste alderdi batzuk ere lantzen dira, hala nola ekintza humanitarioak gaur egun dituen erronkak eta joerak, ekintza humanitarioa abiarazten duten eragileak, genero-ekitatearen, ingurumen-jasangarritasunaren edo giza eskubideen ikuspegi zeharkakotasuna eta kontu-ematea.

Dokumentu hauetan, erakunde humanitarioek, emaileek, erakundeek eta ikerketa-komunitateak nazioarteko elkartasunaren eremu horretan eraginkortasuna eta kontu-ematea hobetzeko gaur egun dituzten erronkak eta eztabaida nagusiak daude bilduta.

Gainera, baliagarriak dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA) 2017an abian jarritako Ekintza Humanitarioaren Estrategia lantzeko prozesurako. Estrategia horren azken helburua erronka horiei beren ezaugarriak eta ahalmenak kontuan hartuta erantzutea da.

Dokumentuak Hegoa, Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko (UPV/EHU) ikertzaile Karlos Pérez de Armiñoren koordinaziopean landu dira. Bigarren zenbaki honen egileak IECAH-Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Ikerketa Institutuko Karlos Pérez de Armiño, Francisco Rey Marcos eta Alicia Pérez Daza dira.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ez du zertan bat etorri lan honetan adierazitako iritziekin.

Dokumentu honek *Creative Commons* erakundearen lizentzia dauka. Lan hau askatasun osoz kopiatzeko, banatzeko eta jendaurrean jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik eratorritako beste lan bat sortu.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirila

# **EKINTZA HUMANITARIOAREN KONTZEPTUZKO ALDERDIAK ETA MUGAK: EZTABAIDA IREKI BATEKO ADOSTASUNAK ETA DESADOSTASUNAK**

## **1. Sarrera**

Ekintza humanitaria testuinguru konplexuetan mugitzen da. Horregatik, humanitarismoak bere osagaiei, norainokoei, jarduteko moduei eta mugei buruzko eztabaidak sortu ditu hasiera-hasieratik, eta ikuskera irekiago eta zabalago batzuetarantz egin du bidea. Hori kontuan hartuta, azaleko hurbilketa batean pentsa liteke ekintza humanitarioaren errealitatea zalantzaz beteta dagoela eta ez dagoela esparru garbi eta zehatzik, baina esan beharra dago ekintza humanitarioaren oinarriak eta zutabe etiko, juridiko eta kontzeptualak sendoak direla eta sektorearen gehiengoaren laguntza eta babesa dutela.

Dokumentu honen bidez, ekintza humanitarioan funtsezkoak diren eta lankidetzazko deszentralizatuko eragileen interesekoak izan daitezkeen kontzeptuzko alderdi batzuen berri eman nahi dugu. Ekintza humanitaria elkartasunaren eremuko jardun multzo baten parte da (garapenerako lankidetzazko, giza eskubideen defentsa, bakearen eraikuntza eta abar). Jardun horiekin erlazio egokia eduki behar du, eta berez dagokionari eta balio erantsi berezia eman diezaiokeen horri eutsi behar dio, hondamendiek edo gatazkek kaltetutako populazioen alde.

## **2. Topaguneak**

“Ekintza humanitario” kontzeptua eragile humanitariorik garrantzitsuenek ulertzen duten bezala aztertzen badugu, denek honako alderdi hauek bat datozela ikusiko dugu:

- Bizitzak salbatzera eta gizakien sufrimendua prebenitu eta arintzera bideratutako laguntza da. Nolanahi ere, helburu mugatua du.
- Testuinguru espezifikotik egiten da, baina larrialdietako laguntza soilak baino gehiago da.
- Babesa funtsezko alderditzat hartzen du: pertsonen duintasuna eta eskubideak.
- Printzipio humanitario batzuetan oinarrituta dago, horietako batzuk eztabaidagai badira edota hainbat modutara interpretatzen badira ere.
- Kaltetutako pertsonen testigantza (neurri handiagoan edo txikiagoan) eta haien aldeko eragin-ekintzak har ditzake barnean.
- Egiten dena ez ezik, egiteko modua ere bada ekintza jakin bati humanitario-izaera ematen diona. Laguntza-ekintza guztiak ezin dira humanitariotzat hartu.

Garapenerako laguntza ofizialaren (GLO) definizio orokorraren esparruan, larrialdietan eta larrialdien ondoren bizitzak salbatzeko, gizakien sufrimendua arintzeko eta gizakien duintasunari eusteko eta babesteko diseinatutako laguntza da ekintza humanitaria. Humanitariotzat hartzeko, laguntzak bat etorri behar du gizatasunaren, inpartzialtasunaren, neutraltasunaren eta independentziaren printzipioekin.

Laguntza humanitarioak honako alderdi hauek hartzen ditu barnean: hondamendiak gertatu aurreko prebentzioa eta prestatzea, aterpearen, elikagaien, uraren, saneamenduaren, osasun-zerbitzuen eta kaltetutako populazioaren onurarako eta bizitza eta mantenu-modu normalerako itzultzeko beste laguntza-elementu batzuen

hornidura, herritar zibilen eta borroketan parte hartzen ez dutenen segurtasuna, ongizatea eta duintasuna sustatu eta babesteko neurriak, eta larrialdi-egoerak dirauen bitartean beharrezkoa den trantsizioko birgaitzea, berreraikuntza eta laguntza. Pertsonak edo jabetzak indarra erabiltzearen edo zabaltzearen bidez babesteko jarduerak salbuetsita daude.

ELGEren Garapenerako Laguntza Batzordea (GLB).

Jakina, definizio asko daude, eta erakunde bakoitzak elementu batzuk edo besteak azpimarratzen ditu, baina GLBren definizioak funtsezko elementuak jasotzen ditu eta, gainera, muga batzuk ere jartzen ditu: indarraren erabilera dakarten ekintzak (militarrak funtsean) ez dira humanitariotzat hartzen. Eta Dohaintza Humanitario Egokiaren printzipioetan oinarrituta dagoen eta emaeleak konprometitzen dituen definizio bat da.


GKEen artean, 1994. urtean Gurutze Gorriaren eta Gobernuz kanpoko Erakundeen Hondamendi Kasuetan Sorosteko Jokabide Kodea onartu zenean lortu zen oinarritzko adostasuna, eta haren ondoren sortu ziren prozesuek Esfera proiektua eta, berrikiago, Funtsezko Arau Humanitarioa (CHS) bultzatu dute, besteak beste.

### 3. Tirabira-alderdi batzuk

Ekintza humanitarioaren munduan, eztabaida ugari egiten dira, eta ekintza humanitarioaren dinamikotasuna agerian uzteaz gain, haren kalitatea hobetzeko prozesuak eta ekimenak sortzen dituzte eztabaida horiek. Ondoren, eztabaida horietako batzuk aipatuko ditugu, praktikoki zein teorikoki garrantzi berezia dutelako eta, oro har, lankidetzaren deszentralizatuari toki bat eskaintzen dion komunitate humanitario osoa eraginpean hartzen dutelako.

#### 3.1. Ekintza humanitarioaren ikuspegi zabala versus ikuspegi mugatua

Ekintza humanitarioak eta bertan lan egiten duten erakundeek hainbat jardun mota izan dituzte eztabaidagai beti. Historia osoan, askotariko ikuspegiak proposatu dira, XIX. mendean sortutako ikuspegi asistentzialista eta aringarriekin hasi eta 90eko hamarkadako "humanitarismo berri" izenekoan bildutako ikuspegi zabalekin amaitzeraino. Erakundeak lan egiten duten testuinguruaren eta beren gain hartu duten eginkizunaren arabera kokatu dira –eta oraindik ere kokatzen dira– ikuspegi batean edo bestean.



Ekintza humanitarioa bizitzak salbatzera bideratutako ekintzat hartzen da, eta inpartzialtasunaren eta neutraltasunaren printzipioak zorrotz betetzen dira. Esparru humanitarioan,	Ekintza humanitarioa jardun integraltzat hartzen da, eta eraginkorra eta koherentea izateko, krisialdiaren aurreko zein ondorengo alderdiak txertatu behar dira, hala nola berreraikuntzari, erresilientziari,	Ekintza humanitarioaren berrinterpretazio honetan, ondorioei lotutako helburuak ez ezik, arrazoiak eraldatzeko helburu zabalagoak ere txertatu behar dira. Jardun horiek, bizitzak salbatzeko eta
--	--	---

<p>irekitasunaren aldeko mugimendu baten ondoren, “back to basics” deitu izan zaio horri. Jardun mota horretan kokatuta dauden erakundeek laguntza politizatuko ez dela bermatzen duelako defendatzen dute funtsean. Humanitarismo “dunantiarra”. Batzuek “minimalista” terminoa erabili dute ikuspegi hori definitzeko, baina mespretxuzkoa denez gero, jada ez da erabiltzen.</p>	<p>hondamendien arriskuaren murrizketari eta intzidentzia-ahalmenen eta intzidentzia-lanen sendotzeari lotutako alderdiak. Beste jardun mota batzuekin lotzeko beharra.</p>	<p>sufrimendua arintzeko ez ezik, testuinguru politikoaren azterketan oinarrituta garapena, bakea eta giza eskubideak sustatzeko ere diseinatzen dira.</p>
---	---	--

Azken urteotan, larrialditik harantz doan profil zabaleko ekintza humanitario batera jotzea izan da joera nagusia. Dena dela, 2016ko Munduko Goi Bilera Humanitarioa prestatzeko prozesuan agerian geratu zen eztabaidak bere horretan jarraitzen duela. Iritzi batzuek argi eta garbi adierazten dute hori:

*“Gaur egun, NBEk premiei erantzuteko egiten dituen ahaleginekin bat egiteko eta ekintza humanitarioa bakea, garapena eta erresilientzia sendotzera bideratutako agenda zabalago batean txertatzeko eskatzen zaio sistema humanitarioari. Estatuak garatzea eta sendotzea funtsezko zereginak dira zinez, baina ez dira eragile humanitarioen berezko zereginak, batez ere boterea eskuratzeko borrokatzen den testuinguruetan. Gainera, epe luzerako garapenaren erronketara bideratzeak krisialdirik larrienetan harrapatuta dauden pertsonak alde batera uztea dakar ezinbestez”.*

MSFren iritzia Munduko Goi Bilera Humanitarioan<sup>1</sup>  
Ondorengo puntuetan, ikuspegi desberdin horien inplikazioak landuko ditugu.

### **3.2. Printzipio humanitarioak eztabaidagai..., baina, nolana ere, printzipioak**

Duela hamarkada batzuek geroztik printzipio humanitarioen inguruan irekita dagoen eztabaida tirabira-alderdien ardatzetako bat da oraindik ere, eta azken aldi honetan areagotu egin da zenbait arrazoi direla-eta: krisialdi batzuen izaera-aldaketa, humanitarismoaren arau eta balio tradizionalekin bat ez datozen eta arau eta balio horiek mendebaldeko printzipioak zabaltzeko mekanismotzat hartzen dituzten eragile berrien agerpena, eta helburu humanitarioak garapen, bake eta segurtasunari lotutako agenden mende utzi izana (eta, horren ondorioz, laguntza politizatzeiko arriskua).

<sup>1</sup> MSF, 2016: “La emergencia es ahora. Las cumbres no tienen sentido si no hay más acción” <https://www.msf.es/file/110041/download?token=jw9yFsSi>

Ekintza humanitaria nazioarteko harremanetan gero eta neurri handiagoan erabiltzen den tresna bihurtu dela dirudi, eta horrek arazo berriak ekarri dizkie erakunde humanitarioei, kontsiderazio politikoek, geostrategikoek edo, zuzenean, militarrek gero eta neurri handiagoan baldintzatzen baitute erakunde horien lana.

Horrek guztiak ikuspegi desberdinak sorrarazi ditu: eragile batzuk printzipio humanitario tradizionalak defendatu eta berrestearen alde daude (mendebaldeko eragileak nagusiki), eta beste batzuek, berriz, dibertsifikazio handiagoa behar dela eta nolabaiteko erlatibismoarekin beste esparru moral, etiko eta erlijiozko batzuk txertatu behar direla uste dute. Gogora dezagun printzipioen azalpen klasikoak honako alderdi hauek hartzen dituela kontuan:

**Gizatasuna:** gizakien sufrimendua gertatzen den lekuan gertatzen dela prebenitu eta arindu behar da, pertsonarik kalteberenak bereziki kontuan hartuta.

**Inpartzialtasuna:** laguntza humanitaria emateko, premia baino ez da kontuan hartu behar, kaltetutako populazioen arteko eta populazioen barneko diskriminaziorik gabe.

**Neutraltasuna:** laguntza humanitarioak ez du lehenetsi behar gatazka armatu batean edo bestelako gatazka batean inplikaturako ezein alderdi.

**Independentzia:** Helburu humanitarioak eta helburu politikoak, ekonomikoak, militarrek edo bestelakoak bereiztea baliagarria da ekintza humanitarioaren asmo bakarra hondamendi humanitarioen biktimen sufrimendua prebenitzea eta arintzea dela bermatzeko.

Interpretazio gehien sortu dituzten bi printzipioak neutraltasuna eta independentzia dira. Horregatik, erakunde batzuek printzipio horiek alde batera uztea edo, gutxienez, gizatasunaren eta inpartzialtasunaren maila berean ez jartzea proposatu dute. Errespetatu al daiteke neutraltasuna Siriako gatazkan, adibidez? Etikoki zuzena al da egungo gatazka asimetrikoetan? Nola berma daiteke independentzia ekintza humanitaria tresna politiko bihurtzen denean?

Ekimen humanitario batzuetan (hala nola Esfera proiektuan edo Funtsezko Arau Humanitarioan –CHS<sup>2</sup>), neutraltasuna ez dago jasota, eta independentziaren alderdi batzuk zalantzan jartzen dituzte.

Sektore humanitaria osatzen duten eragileek hartutako jarrera edozein izanik ere (ekintza humanitario asistentzialagoaren aldekoak edo ekintza humanitario zabalagoaren aldekoak izanik ere), denak bat datoz laguntza mota oro humanitariotzat hartu ezin dela eta ekintza humanitarioak **printzipio humanitarioak bete behar dituela** diotenean (inpartzialtasuna eta esparru juridiko garrantzitsuak nagusiki). Eta ezaugarri horrek, besteak beste, bereizten du ekintza humanitaria haren osagarriak izan daitezkeen edo une jakin batean harekin bat egin dezaketen beste tresna batzuetatik (hala nola garapenerako lankidetzatik).

### 3.3. Eskubideen ikuspegia *versus* premien ikuspegia

Humanitarismoa biktimen eskubideei lotuta sortu bada ere (hasieran bataila-eremuan zaurituak baino ez ziren kontuan hartzen, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren bidez), premietan oinarritutako ikuspegi bat (*Needs based approach*) izan da nagusi ekintza humanitarioan hamarkada askotan.

---

<sup>2</sup> 2014an kalitatearen eta kontu-ematearen inguruan aurkeztutako nazioarteko ekimena, Joint Standards Initiative-k egindako lanaren emaitza izan dena.

Aspaldi samarretik, ordea, garapenerako lankidetzaren eta giza eskubideen esparruaren eraginez nagusiki, eskubideetan oinarritutako ikuspegi bat (*Rights based approach*) zabaldu da, “babes” kontzeptuari lotua, premietan oinarritutako ikuspegiaren aurrean. Ikuspegi horrek betebeharren titularren aurrean eskubideak eskatzeko eta, halaber, beren erantzukizunez jabe daitezen eskatzeko ahalmena ematen die pertsoneri, eskubideen titular diren neurrian. Ekintza humanitarioa bera biktimen eskubidetzat hartzen da.

Nola operatibiza dezakegu eskubideetan oinarritutako ikuspegia, eta nola ezar ditzakegu zehatz-mehatz eskubideen mapa bat eta haiek betetzeko beharrezkoak diren ekintzak? Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegi bat bere gain hartzeak baditu beste inplikazio batzuk ere kontu-ematearen arloan. Kaltetutako pertsonak kexak adierazteko mekanismoak dira, eta CHSan txertatu dira, baina zailtasunak daude praktikan aplikatzeko.

Eremu humanitarioan, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia era aktiboan ari da txertatzen GKE batzuetan, baina erakunde emaleek ikuspegiaren alderdi batzuk baino ez dituzte kontuan hartzen. Nolanahi ere, babes humanitarioaren alderdi batzuk finantzatzeko aukera eman dute. Kasu esanguratsu bat Europako Batzordearen Laguntza Humanitarioko eta Babes Zibileko Zuzendaritza Nagusia da (LHBZ ZN). Zuzendaritza horrek premia-ikuspegi batean oinarritzen du bere lana, eta inoiz ez du eskubideetan oinarritutako ikuspegia aipatzen, baina oso aktiboa izan da babesa lan humanitarioaren zeharkako alderdi gisa bultzatzen.

#### **3.4. Laguntzaren, birgaitzearen eta garapenaren arteko loturari (LBGL) buruzko eztabaida**

Ekintza humanitarioaren eta garapenerako lankidetzaren arteko bereizketari eta 80ko hamarkadaren amaieran sortutako *continuum* kontzeptuaren eta 90eko hamarkadan garatutako *contiguum* kontzeptuaren bitartez garatu diren bi jardun-modalitateen arteko loturari buruzko eztabaidan, beste eztabaida-lerro bat sartu zen 2000ko hamarkadan, hain zuzen ere lotura horren bidez kotasunari eta inpaktuari buruzkoa. Eztabaida horiek gaur egun ere egiten dira oraindik.

LBGL horren oinarritzko ideia zera da, ekintza humanitarioa etorkizuneko garapenean laguntzeko moduan diseinatu eta egikaritu daitekeela eta, aldi berean, garapenerako lankidetzara, sektorerik kalteberenei lehentasuna ematearen eta gaitasunak eta bizibideak (*livelihoods*) sendotzearen bidez, etorkizuneko krisialdien arriskua txikiagotzera bidera daitekeela. Aldi berean, birgaitzea bien arteko zubi izan daiteke. LBGL eztabaida bi proposamenetan zehaztu da funtsean: *continuum* proposamena eta *contiguum* proposamena.

“Larrialdi-garapen *continuumak*” segida kronologiko lineal bati jarraitzen dio, eta ondoko ondoko hiru fase ditu: larrialdia, birgaitzea (aurreko bien arteko zubia) eta garapena. Loturak, nolahi ere, inplikaturako eragileek faseen arteko trantsizio suabe, harmoniko eta koordinatu bat egitea dakar.

“Larrialdi-garapen *contiguumaren*” ikuspegia estrategia integral eta koherente baten barruko jardun mota desberdinen aldi bereko konbinazio batean oinarrituta dago. Hau da, loturak kasu honetan esan nahi du jardun mota desberdinak konbinatu behar direla une oro (epe laburreko larrialdi-jardunak, epe ertaineko birgaitze-jardunak zein epe luzeko garapen-jardunak), bakoitzari, kalteberatasun-tesuinguruaren arabera, garrantzi handiagoa edo txikiagoa eman behar bazaio ere.

## **LBGLaren inplikazio praktikoak**

### **1. Ekintza humanitariorako**

Ekintza humanitarioak berehalako premiei eman beharreko erantzuna (funtzio aringarria) eta etorkizuneko garapenerako laguntza konbinatu behar ditu, eta epe luzean jasagarria izango den inpaktu bat izan behar du. Horretarako, hainbat irizpide hartu behar dira kontuan:

- a) Oinarrizko zerbitzu eta azpiegiturak izaera iraunkorrez sendotzea, eta, horretarako, epe luzean erabiltzea ahalbidetuko duten jarraibide jakin batzuen arabera jokatzeko (kokapen geografiko egokia, tokiko material merkeak, mantentzea errazteko teknologia egokia eta abar).
- b) Tokiko plangintza- eta kudeaketa-baliabideak ekintza humanitarioko jardueretan oinarrituta prestatzea (epidemien kudeaketaren kasuan, adibidez).
- c) Populazio kalteberaren bizibideei eustea, erresilientzia eta leheneratzea errazteko.
- d) Populazioaren ahalmenak (ekintza humanitarioak tokiko erakunde, langile eta baliabide materialak erabiltzea), populazioaren kapital soziala (elkartasun-sareak) eta krisialdiei aurre egiteko estrategiak baliatu eta sendotzea.
- e) Tokiko populazioak ekintza humanitarioaren kudeaketan eta bere ahalduntzean parte hartzea.
- f) Genero-ikuspegia, hondamendiak gizonengan eta emakumeengan duen inpaktu desberdinean oinarrituta.
- g) Giza eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren babesa; LBGL eskema batean, tresna erabakigarriak dira gerraren ondoko birgaitzerako eta sektore kalteberen ahalduntze eta garapenerako.
- h) Bizikidetzaren aldeko sektoreak eta ekimenak sendotzearen bidez, tokiko eskalan bakea eraikitzen laguntzea.
- i) Tokiko populazioaren aurrean kontuak ematea (accountability).
- j) Mezu eta irudi egokiak, hondamendien arrazoi estrukturalak jabetutako ekintza humanitario batera egokituak (ekintza humanitario asistentzialista alde batera utzita).
- k) Printzipio humanitarioak betetzea, premia duen populazio orok ekintza humanitarioa jasotzeko bermerik onena baitira.

### **2. Garapenerako lankidetzarako**

LBGL ikuspegiak, halaber, zenbat betekizun ezartzen dizkio garapenerako lankidetzari. Horren arabera, garapenerako lankidetzaren etorkizuneko krisi humanitarioen arriskua murriztera bideratu beharko litzateke, honako helburu eta irizpide hauetan oinarrituta:

- a) Talde eta eremurik kalteberenei lehentasuna ematea, etorkizuneko krisialdietan kalteberatasun txikiagoa izateko eta erresilientzia- eta leheneratze-ahalmenak (erresilientzia) handiagotzeko.
- b) Garapenerako lankidetzak hondamendi naturalen arriskua murrizteko eta hondamendiak kudeatzeko babesa ematea: prestaketa, arintzea eta prebentzioa.
- c) *Gatazkarekiko sentsibilitatearen* inguruko irizpideak aplikatzea, garapenerako lankidetzak gatazka armatuen arriskua murrizten lagun dezan eta bakea susta dezan.



LBGLaren inguruko egungo dilema nagusia zera da, LBGLak zer neurritaraino dakarren ezinbestez (ala ez) ekintza humanitarioaren politizazioa eta haren izaera eta printzipioen higadura. Horregatik, zenbaitek “oinarrietara itzultzea” proposatu dute, hau da, berehalako premiak arintzera mugatuta egongo den eta epe luzeagoko helburuak alde batera utziko dituen ikuskera klasikora itzultzea. Gainera, gatazka armatuko testuinguruetan, LBGLaren kontrako kritikak handiagoak izaten dira, benetan ezartzeko dauden zailtasunengatik zein ekintza humanitarioak bakearen eraikuntzaren arloan bete dezakeen benetako zereginagatik.

Egindako eztabaidak eta kritikak kontuan hartuta, gure ustez LBGLa bateragarria da eremu humanitarioaren eta printzipio humanitarioen zaintzarekin. LBGLak ez du zertan ekintza humanitarioaren instrumentalizazio politikoa eta adulterazioa ekarri. Arazo horiek ez dira loturaren helburuaren ezinbesteko ondorioak, emaile askok loturari eman dioten erabileraren ondorioak baizik. Erronka nagusia LBGLa eremu humanitario independentearen eta printzipio humanitarioen zaintzarekin bateragarri egitean datza. Ildo horretan, honako hau azpimarra daiteke:

Autonomia Erkidegoek eta Estatuaren azpiko beste emaile batzuek estatuek baino neurri txikiagoan hartu behar dute kontuan interes geopolitikoaren defentsa, eta, horregatik, ahalmen handiagoa dute seguruenik LBGLa naturarekiko eta ekintza humanitarioaren printzipioekiko errespetuan oinarrituta aplikatzeko.

LBGL ikuspegia duen ekintza humanitario bat, ahalmen eta politika nazionalak babesteko maila makroan ez ezik, mikro eskalan ere ezar daiteke (gizarte-eragileekin eta tokiko erakundeekin egin beharreko proiektuetan). *Proiektuek* izaera zatikatua, partziala eta tokikoa badute ere, garapenean ere lagungarriak izan daitezke, prestakuntza, gizarte-antolamendua, oinarritzko zerbitzuak eta abar babestearen bidez kalteberatasuna murrizteko eta ahalmenak handiagotzeko helburua duten heinean.

### 3.5. Hondamendien arriskuaren murrizketa (HAM) eta erresilientzia

LBGLaren antzera, hondamendien arriskuaren murrizketak nolabaiteko nahasmendua eragin du. Esparru teoriko-kontzeptualean ahalegin handiak egin badira ere, hondamendien arriskuaren murrizketa, praktikoki, inorena ez den eremuan kokatuta dago oraindik ere. Hondamendien arriskuaren murrizketarako funtsak ekintza humanitariotik ala garapenerako lankidetzatik jaso behar diren erabakitzeke garaian sortzen den lehia ohikoa da eztabaida-foroetan. Laguntza Humanitarioko eta Babes Zibileko Zuzendaritza Nagusiak urte hauetan bere DIPECHO programen bidez hondamendien arriskuaren murrizketarako proiektu asko zuzendu izanak nahasmendua sortzen lagundu du. Dena dela, alderdi ekonomiko soila alde batera utzita, kontuan hartu behar da eragile batzuek zein besteek lehentasuntzat eta premiatzat hartzen dutela beren proiektuetan arriskuen azterketak barnean hartzea. Ikuskera hori Hyogo<sup>3</sup> eta Sendaiko<sup>4</sup> ekintza-esparruan sortu da. Arriskua guztion kontua da, eta proiektu guztietan hartu behar da kontuan, maila desberdinean bada ere.

Ekintza humanitaria eta garapenerako lankidetzak bereizteko irizpide nagusia testuingurua da: hau da, krisialdi humanitario baten barruan (baita hasieran edota amaitu eta berehala ere) ala krisialdirik gabeko ohiko testuinguru batean gauden. Horrela, beraz, arintzeko zereginak (prestatzen ari den krisialdi bat arintzeko) eta hondamendiaren ondorengo birgaitzearen lehen faseko zereginak ekintza humanitarioan sartu beharko lirarteke. Egungo hondamendietan egin ordez

<sup>3</sup> [www.eird.org/cdmah/contenido/hyogon/framwork-spanish.pdf](http://www.eird.org/cdmah/contenido/hyogon/framwork-spanish.pdf)

<sup>4</sup> [www.unisdr.org/files/43291-spanishsendaiframeworkfordisasterri.pdf](http://www.unisdr.org/files/43291-spanishsendaiframeworkfordisasterri.pdf)

etorkizunean gerta daitezkeen hondamendiei aurre egiteko izaera iraunkorarekin egindako prebentzio- edo prestaketa-jarduerak (baliabide ekonomikoen inbertsio handiak behar dituztenak), berriz, garapenerako lankidetzaren esparruan egin beharko lirateke.

Lantzeko zer modu izango litzateke egokiena hondamendien arriskuaren murrizketa benetako lehentasuna izateko eta beharrezkoak diren baliabideak bermatzeko? Asmatzen ari al gara arriskuen eremuan espezializatuta dauden beste eragile batzuekiko sinergiak lantzean?

Aurreko gaien haritik, **erresilientzia** kontzeptua zabaltzearen eta erakunde humanitario askok gero eta neurri handiagoan erabiltzearen ondorioz, agerian geratu da eragile humanitarioek erresilientziaren alde egiten duten lanak noraino iritsi behar duen eta garapenerako lankidetzako eragileek erresilientzia nola landu behar duten argitzeko beharra. Jakina da erresilientziaren ikuspegi baliagarria dela krisialdi luzeetan (hala nola elikadura-krisialdietan edo goseteetan), baina zailagoa dela aplikatzen larrialdi konplexuetan edo bat-bateko krisialdietan.

LBGLaren edo hondamendien arriskuaren murrizketaren arloan azertu dugunaren antzera, erresilientzia-ikuspegiak eragile humanitarioek txertatu dituzte nagusiki orain arte. Adibidez, Laguntza Humanitarioko eta Babes Zibileko Zuzendaritza Nagusia ari da laguntzen, “Erresilientzia-markatzailearen” bidez, finantzatzen dituen proiektu humanitarioetan gaia kontuan hartzen.

### 3.6. Gatazken prebentzioa eta bakearen eraikuntza

Ekintza humanitarioaren hasierako formulazioetan “sufirimendua **prebenitzea** eta arintzea” aipatzen bazen ere, gatazken prebentzioari lotutako alderdiak ez dira lehentasunezkoak izan humanitarismoarentzat. Izan ere, humanitarismoa ez da gatazken arrazoiengan oinarritu, ondorioetan baizik. NBEko idazkari nagusi Ban Ki Moonek Munduko Goi Bileran Humanitarioan (WHS, ingelesezko terminoaren arabera) aurkeztutako dokumentuak gatazken prebentzioa jasotzen zuen lehenengo puntuan, eta garatzera bultzatzen zuen. Indarkeriazko gatazken prebentzioari lotutako ohiko ikuspegiak politikoak izan dira nagusiki, eta, horregatik, eragile humanitarioek ez dituzte argi eta garbi beren gain hartu, printzipio humanitarioak ezeztatzeko.

Hala ere, krisien tipologian izan diren eta 3.1 eta 3.4 puntuetan adierazi ditugun aldaketak direla-eta, gero eta erakunde humanitario gehiagok lantzen dute era zabalagoan gatazken prebentzioaren eta bakea eraikitze laguntzaren alderdia ekintza humanitarioaren barruan. Hona hemen planteamendurik zabalduenetako batzuk:

**Kalterik gabeko ekintza** (Do no Harm). Mary B. Andersonen ekintza humanitaria bakearen eraikuntzarako elementu negatiboa izateko arriskuei buruz egindako lanek agentzia humanitario askoren arreta erakarri zuten, eta ikuspegi horretan oinarritutako gero eta azterketa gehiago egiten dira orain. Izan ere, agentzia askorentzat, **kalterik gabeko ekintzaren printzipioa oinarritzeko printzipio humanitarioa da**.

**Gatazkaren eta bakearen gaineko inpaktuaren ebaluazioa** (Peace and Conflict Impact Assessment - PCIA) edo gatazkarekiko sentsibilitate-ikuspegiak. Era berean, 3.1 puntuan ikusi dugunez, humanitarismoaren ikuspegi irekia duten gero eta agentzia gehiagok erabiltzen dituzte ikuspegi horiek ekintza humanitaria planifikatzeko.

Jakina, ekintza horiek ez dira laguntza-jardun soilak, eta zenbaitetan zailtasunak izaten dira emaitzek ekintza horiek ekintza humanitario gisa finantzatzeko. Dena dela, nazioarteko iritziekin eta WHSarekin koherenteak bagara, ekintza horiek lankidetzaren deszentralizatuaren bidez finantzatu beharko lirateke.

Bestalde, sektore humanitarioa beti ekintza humanitarioaren kalitatea hobetzeko eztabaidetan murgilduta dagoela badirudi ere, errealitateak eta premia humanitarioei buruzko datu globalek erakusten digute ez dela behar bezala egokitu indarkeria mota berrietara eta XXI. mendeko indarkeria-egoera berriek eta ez hain berriek planteatzen dizkiguten eskari eta premietara. Ekintza humanitarioak Erdialdeko Amerikako Iparraldeko Triangeluan dauden egoeretan (gizakien desplazamenduak eta sufrimendua kontuan hartuta) bete beharreko rola, adibidez, ez da aztertzen ari gaur egun.

### 3.7. Beste eragile batzuekiko eztabaidak

Mahai gainean aspalditik dagoen eztabaidetako bat (neurri batean WHSan landu zena eta *Grand Bargain* izenekoan txertatu dena) eragile "ez-humanitarioek" ekintza humanitarioan parte hartzeko aukerari eta parte hartzeko eta jarduteko beharrezkoak diren protokoloak buruzkoa da. Nola egin daiteke lan era harmoniko, eraginkor eta gardenean bakoitzak bere ekarpen ekonomikoa zein ezagutza-ekarpena egin dezan eta ekintza humanitarioaren berezitasunak errespetatu ditzan?

1. zenbakiko lan-dokumentuan, erakunde-logikatik landu genuen gai hori. Oraingoan, berriz, lankidetzaren deszentralizaturako interes handiagoa izan dezaketean eragileen printzipioetan eta norainokoetan oinarritutako ikuspegi batetik azalduko ditugu elementu batzuk.

**Enpresa pribatuak.** Sektore pribatuak ekintza humanitarioaren arloan bete dezakeen rola garrantzitsua da, eta haren bidezotasuna are garrantzitsuagoa, egungo testuinguruan premia humanitarioak gero eta handiagoak direla kontuan hartuta. Sektore humanitarioari itxitasun handiegia leporatu izan zaio sarritan (eta arrazoiarekin gainera), eta gai izan behar du eragile horiek arlo ekonomikoan zein teknikoan duten balioa baliatzea ahalbidetuko duten tresnak sortzeko. Bestalde, beste eragile "ez-humanitario" batzuk sartzeko errezeloa eragileen lotura hibrido horiek eduki eta/edo sor ditzaketean arriskuengatik justifikatzen da. Nolanahi ere, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Enpresa pribatua mugitzen duen interes nagusia irabazi-asmoa da. Enpresa bat ekintza humanitarioan parte hartzera bultzatzen duten arrazoiek garbiak izan behar dute. Gogora dezagun ekintza humanitarioa populazioaren premia eta eskubideen arabera bideratu behar dela.
- Enpresak ez daude printzipio humanitarioekin ohituta, eta, horregatik, gerta daiteke printzipio horiek ez betetzea eta, are larriagoa dena, enpresen jardunak printzipio humanitarioekin bat ez datozen beste printzipio batzuei jarraitzea.

Enpresaren ospe orokorrak eta jardun-eremuan lan egin ondorengo testuinguruan jasotzen duen espezifikoak eragina izango dute onuradunek enpresaz duten pertzepzioan, eta horrek, aldi berean, eragina izan dezake enpresaren lanean eta lanaren inpaktuan. Moralki onargarria al da edozein enpresak lan humanitarioan parte hartzea (betiere ongi ezarritako jardun-protokolo batzuei jarraituz)?

**Diasporak.** Berriki egindako azterlan batzuek erakusten dutenez, diasporek krisialdiei erantzuteko betetzen duten zeregina gero eta garrantzitsuagoa da. Hainbat abantaila dituzte beste eragile batzuen aldean, hala nola lehen eskuko informazioa lortzeko aukera, bereziki sentikorrek edo ibiltzeko zailak diren eremuen ezagutza hobea eta iristeko erraztasun handiagoa, eta denbora laburrean baliabide kantitate handia mobilizatzeko ahalmena.

Edonola ere, diasporen laguntzak ekintza humanitarioaren nazioarteko koordinazio-mekanismoekin paralelo garatzen dira, eta baliteke laguntza horiek printzipio humanitarioak ez betetzea.

Hortaz, eragile horien eta nazioarteko laguntza-sistemaren arteko elkar-ulertzeaz gain, bien arteko koordinazioa hobetu behar da, informazioari zein egikaritzeari dagokionez.

**Beste eremu eta/edo sektore batzuetan espezializatutako GKEak.** Oinarrizko eragile humanitarioek ez dute kontuan hartzen besteak beste giza eskubideetan, populazio indigenan edo generoan espezializatuta dauden GKEek errealitateaz duten ikuskera, ezta haien datuak eta populazioarengana iristeko aukera ere. Eragile horiekiko elkarrizketa sustatuz gero, erantzunaren egokitasuna eta gatazken prebentzioarekiko lotura hobetuko lirateke.

**Komunikabideak.** Komunikabideek funtsezko zeregina betetzen dute Iparraldeko gizarteetan informazioa zabaltzen. GKEek rol garrantzitsua betetzen dute mezuak zabaltzeko eta komunikabideei informazioa emateko garaian, era horretan larrialdiak funtsak biltzeko tresna soil gisa erabiltzen ez direla eta krisien arrazoiari berri ematen dela bermatzeko eta balioetan prestatutako eta informatutako gizarte bat eraikitzen laguntzeko.

**Indar armatuak.** Militarrek larrialdien edo gatazka armatuen ondorengo laguntza-zereginetan gero eta parte-hartze handiagoa dute, eta horrek oso aspaldiko eztabaida bat sorrarazi du berriz. Osloko Jarraibide izenekoak duela hamarkada batzuek geroztik lantzen ari dira gai hori, eta horrelako zereginetan baliabide militarrek erabiltzeko moduari buruzko irizpide batzuk proposatu dituzte. Gure ustez, estatuek bete beharko lituzketen erreferentzia baliagarriak dira oraindik ere jarraibide horiek. Espainiako Estatuan berriki gertatutako kasu batzuek (hala nola Nepalgo lurrikara gertatu eta egun batzuetara Larrialdietarako Unitate Militarra –UME– bidali izanak –herritar espainiarrak bilatzeko aginduekin hasieran–) agerian utzi dute gai honen eta dakartzan arriskuen inguruan dagoen nahasmendua.

### 3.8. Testigantza eta intzidentzia

Beste atal batzuetan, lan humanitarioaren parte gisa aipatu ditugu gai horiek. Erakunde bakoitzak gai horiek bere mandatu edo eginkizunaren arabera modu batean edo bestean landuko dituela jakinik ere, ekintza humanitarioaren barruan laguntza-izaerarik ez duten dimentsio horiek gainerako jardunekin bat etorri behar dutela eta propaganda- edo sentsibilizazio-osagarri soilak ez direla azpimarratu nahi dugu. Beraz, erakunde emaileen finantzaketa jasotzeko aukera izan behar dute, haien helburua, ekintza humanitario osoarena bezalaxe, kaltetuta edo arriskuan dauden herritarren egoera hobetzen laguntzea baita.

Intzidentzia ez da Iparraldeko herrialdeetan soilik garatzen. Garrantzitsua da tokiko agintariekin tokiko estrategia bat zehaztea maila nazionalen.

Koordinazioa oinarrizko balioa da intzidentzia maila guztietan eraginkorragoa izateko eta ingurune zailetan erakunde batzuen segurtasuna bermatzeko.

## Bibliografía

Europako Batzordea (2012): *El planteamiento de la UE sobre la resiliencia: aprender de las crisis alimentarias*. <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52012DC0586&from=ES>

Pérez de Armiño, Karlos (2002). *La vinculación ayuda humanitaria-cooperación al desarrollo. Objetivos, puesta en práctica y críticas*, Lan Koadernoak, 33. zk.

Hegoa (UPV/EHU), Bilbo. <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/209>

Pérez de Armiño, K (zuz.). *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*. HEGOA. <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/>

Rey Marcos, F. *¿Es posible una ayuda humanitaria basada en derechos? Reflexiones sobre el enfoque basado en derechos humanos en la acción humanitaria*. [http://iecah.org/images/stories/DHE\\_08.pdf](http://iecah.org/images/stories/DHE_08.pdf)

Rey Marcos, F, De Currea Lugo, V. (2002). *El debate humanitario*. Icaria Editorial. Madril.

Sanjurjo García, D. (2011): *La “sensibilidad al conflicto” y su incorporación por parte de las ONG en el ámbito español. Análisis y claves para su generalización*. IECAH. [http://www.iecah.org/images/stories/comunicados/descargas/dociecah\\_10\\_2011.pdf](http://www.iecah.org/images/stories/comunicados/descargas/dociecah_10_2011.pdf)

HAINBAT EGILE, IECAH. (2010): *La vinculación entre la ayuda de emergencia la rehabilitación y el desarrollo. Estado de la situación a nivel internacional y aportaciones para la formulación de una política de la Oficina de Acción Humanitaria de AECID*. [http://www.urd.org/IMG/pdf/VARD\\_IECA\\_URD.pdf](http://www.urd.org/IMG/pdf/VARD_IECA_URD.pdf)

Bombín Bollaín, J. (2014): *Las alianzas público privadas en el ámbito humanitario. Algunas reflexiones teóricas y prácticas sobre la incorporación de las empresas al sector*. IECAH. <http://iecah.org/images/stories/publicaciones/documentos/Doc18-APP.pdf>